

ESKOLARA

Zazpi urtegaz asi nintzan nire leenengo ikastaldiak egiten. Okan genduan geure eskola. Don Pedro abadea zan irakasle. Irakasle ona genduan. Baina, denbora bear ikasteko, eta arin itzi bear izan neutson eskolara joateari. Etxean, mutiletan zaarrena nintzan, eta aita eta amari laguntzen geratu bearra izan neban. Amasei urte neukazan arte, baserrian, gurasoen laguntzaile. Bizitzarik ederrena ere sasoi orretan, ezeren ardura barik.

Amasei urtegaz urten neban neure baserritik. Ordurako ba nituen beste neba-arreba batzuk gurasoei laguntzeko, eta ebanista ikastera joan nintzan, Okan, Ibarruriko mugan, egozan tailer batzutara. Ermenegildo Presilla zan tailer orreen ugazaba, entzute aundiko eskultorea. Presilla onek, gabaz, lanak amaitu ondoren, eskola emoten euskun. Dibujoa zan irakasten euskuna. Emen ikasi genduan tailer apur bat. Urte bi egin ondoren, Bilbora, Felipe Aiastuiren tailer batzutara, aldatu nintzan. Tailer oneek arotz-tailerrak ziran, eta obretako lana egiten eben. Bilbon nintzan bitartean, lanetik seiretan urten, eta eskolara («Artes y Oficios»-etara) joaten nintzan. Ikasketa oneek mesede aundia egin eusten.

LOGROÑORA

Felipe Aiastui-ren tailer oneek, Logroñon obra aundi bat artu eben, eta guk ere ara joan bearra izan genduan. Etxe orren izena «Cine Catolico» zan. Beraan, zine edo antzerki-lekua eta gainean, bost bizileku. Sei bat ilabete egingo genduzan etxe au amaitzen. Dozena erdi bat bilbotar eta iru gernikar ginan. Enparauak, Logroño aldekoak. Gure lana arotzeria zan. Bilbotik joan ginanak gazteak ginan. Nik 20 urte nituan, besteak ere 30etik beerakoak, baina danokere jan-edanerako sasoi onekoak. Ostatuko patroneak ez euskun naikorik emoten. Aaleginak egiten ebazan, baina amar bat batzen ginan maai-inguruan, eta ekartzen ebana laster garbitzen genduan. Txakurrentzako ez zan sobrarik geratzen, baina gosea non ase aurkitzen genduan. Ba zan, «Bodegon» izeneko taberna bat, Bilbotik joan ginanok geuretzat legez artuta geunkana. Eta emen egiten genduan eguneroko errazinoa: kuartilo bat arda, Ebro ibaiko barbo bat eta librako ogia bakoitzarentzat. Bederatzi txakurraundi izaten zan bakoitzarena. Alan eta guztiz ere, ostatua ordainduta, bost pezeta eta txakurraundi bat sobretan jakun. Orduko txakurraundi batek gaurko 50 pezeta inguru balio ebazan.

Errazinoa artu ondoren, bodegoi aretan ez zan umore

onik falta izaten. Bilbotarrak euren abestiekaz asten ziran. Ba genduzan lau ederto abestuten ebenak. Oneei entzuten pozik egoten ziran bodegoi aretan sartzen ziranak. Gure kuadrilea sartzen zanean, laster esango eben: «Ya vienen los bilbainos», baina bertan ere ba ziren ondo abestuten ekienak, naiz eta beste era batekoak izan. Euretari bat, gurekin peoi ebilena, San Asensio izenekoa. Oso abots ederrekoa zan, jotak abestuten artista; mutil ona gainera. Bodegoi aretan, gure kuadrilea ez euken saltzeko. Jakina, geu ginala bide, negozio polita egiten eben. Esaera zaharrak dinoanez:

Txin, txin, txin, txin

diruaren otsa

Arexek ematen dit maitia biotzean poza.

Obra a ere ba joian amaitzera, eta, amaitzerakoan, mon-jorra. Batzuek totoa esaten deutsoe. Dana dala, obrea amaitzen dan egunean egiten dan afaria dogu. Gertatu ere oso ederra egin eben.

An batu ziran Goi Jerarkiako buruak: Logroñoeko Gotzaina, Gobernadore, eta jarraiko aristokraziako oorezko geienak. Gu ez ginduezan personaje areek arduratzen. Gure ardura bakarra, tripea nondik bete zan. Bete ere polito egin genduan. Gabon bezperea zan. Barrutik otzik ez bagenduan ere, kanpoan leia, izotza, egoan, eta ez edozelangoa. Edurra baizen zuri egozan inguru guztiak.

Gabeko amabiak ziran zine aretatik urten genduanean, eta an joan ginan 'Logroñoeko «Espolon», Esparteroren estatua egoan lekutik zear. Danok kantari, baina inork ez ekian zer kantetan eban. Alkohol eta txanpanaren irakinaren burrundadea zirudian, baina, ala ere, konforme ginan geurearekin. Gabon bezpera zanez, obeto esanda, Gabon goizaldea, etxera etorri gura genduan, geure sendikoekin Gabonak igarotera. Goizeko lauretan geunkan trena, eta iru bat ordu itxaron bear. Leen esan dodan legez, barrutik on-do berotuta egon arren, izotza asi jakun berak agintzen ebala esaten. Amar gradu egozan zeroren azpitik, eta naikoa luze egin jakun tren zaar aren etorrera. Ordurako etorri izan balitz, gaitzerdi, baina ordu erdi beranduago eldu jakun. Ez ginan asarre izan trenean sartu ginanean. Ba genduan kantara erdi (zortzi litro) arda gorri. Bilbora eltzean ez zan sobra aundirik garrafoian. Alkarregaz polito bazkaldu ondoren, batak bestea agurtu eta bakoitzak bere txokora jo genduan, Gabonak sendikoekin pozik igaroteko asmoz. Gurasoak pozik, neba-arrebak bardin, eta aitita-amumak irribarre gozotan, aspaldi kanpotik zan lobeagaz Gabonak ospatzeko.

Lurrezko lapikotxua pil-pil orio azaz egina

Eta zintzilik dinbi ta danba gaztainakin danbolina
Marraskilu ta intxaur saltsea ontzi batetik gura aina
Gaur lez aldatu bearrik ez zan aurreko azpil zikina.

Logroñotik Gabonak igarotera etorri ondoren, neure baserrian geratu nintzan, ez baserrian lan egiteko, baina bai neure lanbideari jarraitzeko. Ba dira ainbat etxe barri geuk eginak, Muxikan, Gernikan, Busturin, Mendatan, Artean, Bermeon eta abar. Lanbide onetan urte batzuk egin ondoren, transportean asi nintzan nire anaia Imanol, anaietan gazteena, lagun nebala. Kamioia aitak erosi euskun. 1934. urtea zan. Errepublika denborak ziran. Euskadi eta Espainiako probintziarik geienak arakatu genduzan. Naiz eta gasolnea 75 zentimotan egon, ez egoan irabazpide askorik.

EZKONTZA ETA GERRATEA

1935ean, Azilaren 30ean, San Andres egunean ezkondu nintzan «Ormaetxe» baserriko Klara Ealogaz. 29 urte nebazan eta, emazteak 27. Transportean jarraitu genduan Espainiako Matxinadararte. Gerra arek eroan euskun kamioia, eta banandu ginduzan iru anaiok: Sabin, Imanol eta ni. Imanol eta Sabin Euskadiko Gobernuaren zerbitzura eroan ebezan. Ni etxean geratu nintzan, gure Gernika erre arte. Au erre eta bigarren egunean itzi genduzan Usparitxa neure jaiotetxea eta gaur bizi nazen Ormaetxe geure baserri maitea. Eroan aal izan genduzan trasteak artuta, Bilbora joan ginan.

Bilbon gengozala, Bizkargiko frentera bialdu ninduen enlaze moduan. Maiatzaren 20^a zan, neure jaiotza eguna. Ba neban berebil eder bat neure zereginetarako. Nire lana, parteak eroan eta ekartzea zan, eta frentean zauritzen zirariak eroatea. Bat baino geiago bidean il jatazan, gure eusko gudari sendoak. Benetan errukarri eta gogoangarriak euren azken berbak. Eureka ebilenak bakarrik daki egun baltz areen barri. Bidean ginoiazala, Francoren abioiak ez euskuen goitik baketan izten. Berebilen gainean lanazko koltxoiak erabilten genduzan abioien metrailetak zulatu ez gengiezan.

Gure gudariak adoretsuak ziran. An ebilen Bizkargi azpian abioi junker bat beeraino jetsi eta ametrailetan. Guraban guztia egiten ebala esan zeitekean. Baina, alakoren baten gure gudari batek bere ametrailadoreagaz zulatu eban junker ori. Abioia, besteen alderdira jausi zan, baina abiadore alemaniarra gure aldera, «paracaidas»-ean. Batzuk, aidean etorrela il nai izan eben, baina Padura batailoiko kapitan batek ez eutsen itzi. Gizona beti gizon. Olako erakutsi asko emon eben euskaldunak.

Bilbon fazistak sartu baino iru egun leenago, Lezaman,

zaurituta jausi nintzan. Oso txarto eroan ninduen Basurtuko gaiso-etxera, eta biaramon goizean, Santanderreko «Bien Aparecida» trinitarioen komentura. Komentu au gaiso-etxe biurtuta egoan, obeto esanda, gudari zaurituen ospitala. Ba ziran emen ainbat euskaldun ni baino txartoago egozanak. Arrera ona egin eusten gure gudari euskotarrak. Soineko barik, manta baten batuta, sartu ninduen ospital errukarri aretan. Ba ziran bizkaitar eta giputzak. Erdi bilozik joan banintzan ere, ba neban nork soinekoak emon. Biotzez triste baziran ere, irriparrezko aurpegi anaikor eta maitakorrenagaz aal eben guztia emoteko gertu egozan. Emen iru egun egin ondoren, Santanderreko urira, Sardineroako gaiso-etxera eroan ginduezan batzuk. «Aparecida»n geratu ziran gure anaiak oso suerte txarra izan eben: guk urten eta laugarren egunean bonbardeatu egin eben ospital ha. Batzuek ilak eta besteak lehengoaz gainera zaurituak. Negar gozatsu egin genduan ain maite genduzan gure anaien galtze aregaz. Ez ziran Euskadiko mendietan il. Atzerrira joan ziran euren Erriari betiko agurra egiten. (Goian begoz)

ARERIOEN ESKU

Noz edo noz osatu nintzan. Sardinerotik Santoñara ekarri ginduezan. Emen eta Laredon izan ginan, fazisten gudarosteak sartu arte. Leenengo sartu ziranak italiarrak izan ziran; ondoren espainiar fazistak. Santoñan sartu ziranean, «Batallon Padura»ko kapitanak gure ikurriña artu eta italiarren aurrez aurre jaso eban, eta italiarren komandante batek euren ikurriñagaz gurea agurtu eban.

Egun baltzak euskaldunontzat. Negarra ba zan, Aberriaren negarra. Aberria itzi eta etsaiaren menpe, herbestean jausi bearraren negarra. Anaiak bananduta, sendiak zatituta, etsaia, gorrotoz, «asesinos» deadarka... etab.

Sartu eta egun batzutara, Euskadiko Gudarosteak banatzen asi ziren: batzuk Laredora, beste batzuk Castrora eta abar. Gu, mordo bat, Laredon geratu ginan italiarren menpean. Beste ainbeste edo geiago Santoñan. Enparaukoak beste probintzia batzutara eroan ebezan. Laredon, «Campo de concentracion» deritxon lekuan gengoan italiarren menpe. Oneek agintzen eben. Alan eta guztiz be, txapel-gorri batzuk, italiar guardiei uko eginaz, intentzio txarrez sartzen ziran.

Baten, iru izardun txapel-gorri bat, naparra eta abade, gu gengoan tokira sartu zan. Gugaz egoan abade gazte bat, eta gure abade oneri, abade erreketen iru izardun txapel-gorri arek, pistolea paparrean jarriaz dirautso:

— Saca por favor la pistola que llevas auestas.

Gure abadeak eskua sartu boltsilora eta errosarioak atara eutsozan, esanaz:

— Auxe da nik frentean erabili dodan arma bakarra.

Aretan gengozala, italiarren komandante bat eldu zan eta txapel-gorri armaduna, belarri ondoko ederra emonda, jaurti eban andik, gugaz ez eukala zereginik esanda, gure abadeak ere kapitainen gradua eukan eta. Orra or, gorri kriminala errosarioekin eta «la Cruzada»ko katolikoa pistoleagaz. Ederra pelotea!

Andik, «Campo de concentracion»etik, atara eta Laredoko prantziskotarren komentuan sartu ginduezan. Ona arte, italiarrak agintzen euskuen. Emetik aurrera, Patxitarren eskuetan gengozan. Emen asi genduan kurutz-bidea. Euskerarik egiten bagenduan, zigortuak ginan.

Egun baten nire arrebaren bisita izan neban. Ixil-osteka itz egiten genduan euskeraz. Gugandik ogei bat metrotara erreketete txapel-gorri bat egoan eta betikoa, apur bat banandu ginanean! Agur Bixenta! altutxu esan neutson. Txapel-gorri arek erantzun eustan:

— Quē es eso de agur! estamos en España, gracias a Dios. — Si señor, estamos en Santander.

Ez ninduan jo, baina larri erabili ninduan

KARTZELA

Laredon denbora zati bat egin ondoren, Dueson sartu ginduezan. Iru bat mila izango ginan kartzela baltz eta gorrotozko aretan. Guretzat beintzat berba garratz eta amenazu naikoa zan. Gu ginan «asesinos», «ladrones», «violadores», eta abar.

1937ko urriaren 10a zan Dueson sartu ninduen eguna. Beste batzuk, arinago sartuta, laster afusilatu ebezan: Azkue, Markiegi eta beste abertzale batzuk, guztiz amalau. Danak ziran Euskadiren aide burrukan ibili ziran euskotar jatorrak. Oneek il eta egun batzutara, gau baten, larogei afusilatu ebezan. Oneek ez ziran euskotarrak. Orduan amaitu ziran Santoñako ilketak. Kanpoko agindu bat eldu zan: Santo-flan geiago ez ilteko, barruko gora-beerak zirala bide il ebezan arren.

DANIEL* LOSADAREN HERIOTZA

Santoñako kartzelako gomuta aaztu ezina daukat eta, nik legez, an egon ziran iru mila Euskadiko gudariak ere bardin

izango dabe, bizi diranak beintzat.

- Leenengo argitaralpenean Frantzizko jartzen zuen lekuan, Daniel bear zuen. Frantzizko Gasteizko kartzelan aurkitu zuen bere anaia zen.

Ogeitamazazpiko urtea zan, azilaren ogeitabosta, Arana Goiri-tar Sabin il zan eguna; au da, Sabin 1903ko azilaren ogeitabostean il zan, eta jazoera au 1937an zan. Pasaiako mutil gazte bat zan Daniel Losada. Mutil au komunisten batailo bateko kapitana zan. Gernika erre aurretik, Gipuzkoako frente batean zaurituta, oso txarto egoan. Gernikako Karmeliten komentuan (komentu au gaiso-etxe biurtuta egoan) neskatilekin gazte batek zaintzen eban, eta berak esaten ebanez, ondo zaindu ere. Gernika erretan egoala, neskato arek esan ei eutson:

— Gure Gernika ondatu dabe eta ez bakarrik ori, nire gurasoak eskonbro artean geratu dira. Umezurtz geratu naz. Baina oraindik niretzat Euskadi geratzen da, Euskadi odolez gorritua.

Begietatik negar malkoak eriozala, ixildu ei jakon. Orduan Daniel Losadak esan eutson:

— Entzun gazte, zer adierazi nai dozu Euskadi geratzen jatzula esatean?

Neska arek ikusi eban Losadak Euskadiren kondairaren barri ez ekiala eta euskaldunok zer ginan eta zer gura genduan edasi eutson. Neskato onen jokaera ikusi ebanean, gure idazti batzuk eskatu eutsozan; baita beingoan ekarri ere. Orduan biurtu ei zan eusko abertzale.

Daniel Losada au Dueson, Santoñan, egoan, baina osatu barik, eta ez eutsoen jaramonik egiten. Ba ziran an Pereirotarrak, lau anai, Algortakoak, Getxokoak semez. Euretari bat osalaria zan eta onek garbitzen eutsozan zauriak; baina alan eta guztiz ere oso txarto egoan, osagairik ez egoalako.

Losada au oso argia zan, mutil ikasia eta gizon legez gitxi lakoa. Sarritan esaten euskun, Bizkaiko eta Gipuzkoako mutilak Naparroako neskatilekin ezkondu bear leukeela Euskadi osoa abertzaletuteko. Oso begiko egin jakun Dueson mutil jator au.

Ona emen zer jazo zan beragaz:

Losadak ez ekian euskeraz. Azilaren 23an, onela esan euskun:

— Mañana os voy a dar una sorpresa.

Guk ez genkian zergaitik esan nai eban ori. Goizean,

bederatzietan, bandera aurrean zin egiten eroaten ginduezan, baina Daniel ez zan joaten. Egun orretan gurekin zan. Bandera jazotzean, itz oneek esan bearra egoten zan:

—«Viva España», «Viva Franco»), «Arriba España».

Baina Danieiek ez eban olan esan. Pauso bi aurreratu eta ukabila gora jasoaz, itz oneek esan ebazan:

—«Viva la Republica», «Viva la libertad», «Arriba el nacionalismo vasco», «esto no es humanidad».

«Comandante de plaza» egiten ebana etorri jakon eta amurru biziz, begietatik sua eriola, esan eutson:

— Queda detenido.

Danieiek erantzun:

— Llevo mucho tiempo detenido.

Gure Daniel an daroe Francoren soldadu kanarioek.

Biaramon goizean, ordu berean, atara ginduezan banderari zin egitera. Au eguneroko lana zan. Bezperan legez, bardin egin bearra egoan; baina Losada Francoren bost soldaduren erdian ekarri eben, jaketxo zaar bat lepotik erdi zintzilik, besterik ez eukan eta. Ondotik joian bertako kapeilaua. Guztiok formatuta jarri ginduezan. Asi zan komandantea esanaz:

—«Viva España», «Viva Franco», «Arriba España».

Losadak komandantearen deadarrekin batera, bezperan bezala, berba berberak esan ebazan:

—«Viva la Republica», «viva la libertad», «arriba el nacionalismo vasco».

Amaitu baino ez, bost piketeak Losadaren gorputza zulatatu eta ilda itzi eben. Lurrera jausi eta laster, zaku bategaz estalduta, an itzi eben txakurra bailitzan. Andik ordu bira etorri zan morroi bat karretila bategaz eta basurako zaku bat legez bertara bota eta guztion aurrez-aurre eroan eban, ez dakigu flora, kanposantura ala aparteko lekuren batera.

Egun gogoangarria benetan, Sabin il zanetik 34garren urtea. Euskotar askorentzako ikasbide ederra itzi euskun gure Losada Pasaiarrak. Gerran eta emakume baten bitartez abertzaletu zan ogeitahiru urteko mutil gazte eta euskotar jatorra. Bearbada, Losada abertzaletu eban emakumea bizi izango da. Zorionak berari eta oroitzapen bat Losadari.

Olango ainbat izango dira Euskadiko lurak iruntsi eta ixilean dagozanak. Izango al da egunen baten, zinopa orreen oroitzapenez jasoriko oroikarri bat ikusteko garaia, ainbat odol ixuri eta ixuriten dagoen gure Aberri maite onetan!

Irakurlea: Jon Enbeita - Muxika